



Banandu-bearra

*Kai ertzean bigun kulunka,
 or itzas astuna...
 ta jende-mordoa begira,
 banan-bearrez ituna.
 Urez doazanen artean
 zenbat agur ta besarika!
 Zar ta gazte, erreka bai'litzan,
 zotiñari eraginka.
 Azkenik, joan-dei garratza
 uin ostin barruna dardar...
 Ez uste nik une au zanik
 orren minbera ta lakar!
 Koldobi itxasoz doa aruntza,
 zoriak erakarria:
 ta agurtzekoan, aren atots
 eta biotz-min larria!*

*Neugana dator leia bizi,
 barnean dakar aruntza...
 Ito-zorian jarri dautso
 banan-bearrak biotza.
 Ezin itzik bat be taiutu
 edegi arren expanak;
 bizi-beroa ixurigaitik,
 ezin balio barrenak.
 Arnasea daust edan gura,
 nire besoetan murgil:
 iparrak altza lez nau lotzen,
 begian malkoa zintzil.
 Gero... geldu, arnas-estuka,
 miñez aseca ta larua,
 diraut: "Ai, obe, expa-zindudan
 iñoiz be zu ezagutu!"*

Igoite